

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Itzalaren eta argitasunaren arteko borroka

Sakanako taldeak argi du musika mezuak helarazteko erabili nahi duela. Euskal Herriko egoera politikoarekin oso kezkatuta daude, eta erasoei erantzuteko eta autodeterminazio eskubi-dearen alde egiteko aldarrikapenak egiten dituzte. Horretarako, eta bestelako sentimenduak ere plazaratzeko, 1980ko hamarkadako punkaren, euskal rockaren eta AEBetako hardcore melodikoaren arteko kantuak idatzi ohi dituzte, baita ska ukituko kantaren bat eta Bouncing Souls taldearen bertsio bat ere. Taldearen ezaugarri azpimarragarrietakoa neska eta mutil banak ahotsak tartekatzea da; horrek kantuei kutsu melodikoagoa eta emaitza biribilagoa ematen die. Denbora gutxian aurtengo Gazte Topaguneko *Zeru gorriko egunak*, eta *Euskal Herriak autodeterminazioa* eta *Musikaz Sakana indartuz* ekimenetarako kantu bana grabatu du Hesianek.



Maite dugu
Hesian

AUTOEKOIZPENA
Iraupena: 29'20"

HESIAN

«Maitasuna izan daiteke borrokarik gordin eta mingarriena»

Gauzak dauden bezala, "maite duzue" ironia?

Esan beharrekoa beste era batera esateko aproposa da ironia. Betikoa betiko moduan esatea erraza da, panfleto edo txosten bati akordeak ipini eta lixto. Kritikoak eta exigenteak gara gure buruarekin. Horretaz aparte, ironia hori are aproposagoa da sarritan, albistetan edo kalean entzuten diren gezurrei aurre egiteko: lagunak ikusteko ehunka kilometro egitea, hildakok lurperatu eta ezin negarrik egitea... Ez dugu nahi, ez dugu hori maite, baina behartuta gaude horrela bizitzera.

"Erasotzat jotzen dute garena babestea". Zein da defentsa onena?

Babes edo defentsak muturreraino eramaten direnean eraso bihurtu daitezke. Baina ez dira erasoak, dagokiguna soilik eskatzen dugu, borrokatu egiten dugu... Dudarik gabe defentsa onena, etsaiari min gehien egingo diona, eraikitzea da: gure herria oinarritik berpiztea. Eta, noski, erasotzen gaituztenean, aurre egitea.

"Zugatik emango nuke bizitza", "Ene zainak moztuko nituzke zure minak baretzeko". Halako erromantikoa da Nafarroako gazteria borrokalaria?

Gazteria nafarraren izenean hitz egitea gehiegi litzateke! Sentitzen duguna idazten dugu. Nork ez du noizbait maitatu? Nork ez du kontrolatu ezin duen zerbait sentitu? Maitasuna izan daiteke borrokarik gordin eta mingarriena. **Sakanatik zer inspiratzen dizue itsasoak?**

Itsasoa edo itsas bazterra muga bat da. Bizitzan gauza eta pertsona askotara loturik aurkitzen gara. Arnasa eta arnas ezaren arteko muga da, borroka etengabea. Ezintasunari buelta eman nahian gabiltza hor; itsasoak bere handitasunarekin lagunduko digu. Azken finean, itsasoa gauza askotara loturik egon arren, askea baita. **Sinesten duzue musikak eta musika taldeek kontzientzia egin dezaketela?**

Noski baietz. Musika tresna ezin hobea da komunikaziorako, eta komunikazioa kontzientziarako ezinbestekoa da.

